


## PERTSONEN ZENBAKETA: SmartKalea proiektuaren esparru barruan Donostian ezarritako zenbaketa sentsoreak



Donostiako Alde Zaharreko zenbaketa sentsoreen kokalekuen mapa, kale hauetan: Portu, Nagusia, Narrika, Abuztuaren 31, Fermin Calbeton eta San Lorenzo

Donostia Sustapenak pertsonen zenbatzeko sentsore ugari ezarri ditu hirian zehar, SmartKalea proiektuaren esparru barruan. Sentsore hauei esker ezagutu daitezke kale bakoitzetik igarotzen diren pertsonen kopurua denbora errealean eta bi norabideetan, Alde Zaharrera sartzeko eta bertatik ateratzeko, % 97tik gorako zehaztasunarekin.


Sentsoreen ezarpena ez da bakarrik Alde Zaharrean egin, Altxa Pasealekuak ere badu zenbaketa sentsore bat eta laster ipiniko dira Antxo Jakituna kalean ere, baita hiriko beste puntu batzuetan ere. Garrantzitsua da azpimarratzea pertsonen zenbaketa datuak erabat anonimoak direla eta ezin direla pertsonak inolaz ere identifikatu.

Informazio hau proiektuaren monitorizazio plataforman biltzen da eta bertan garatzen da analisirako eta adierazleak eskuratzeko prozesua. Adierazle horiek SmartKalea proiektuaren webgunean (<http://www.fomentosansebastian.eus/smartkalea/es/monitorizacion>) argitaratzen dira egunero, eta modu horretan hedatzen eta partekatzen da eguneroko pertsonen kopurua auzoka, egun jakin batean, aste batean, hilabetean eta pasa den

urtean, besteak beste.

Tresna horrek kale bakoitzaren okupazio txosten estatistikoak prestatzea ahalbidetzen du, antzeko denbora epeak alderatuta, orduz ordu, aurreko urteekin alderaketak egitea, etab. Era berean, sareren eta irteeren monitorizazioak informazio baliotsua ematen du jaiegunitako eta egun berezietako pertsona kopuruaren areagotzea antzemateko, eta baita edukiera kontrolatzeko ere. Informazio xehatu hori, udal kudeaketa hobetzeko garrantzitsua izateaz gain, balio handikoa da ere eremuko merkataritza establezimenduetzat, pertsonen mugimendu patroiak ezagutzeko aukera ematen baitu, zerbitzuak datu hauen arabera egokitzea ahalbidetuta. Halaber, proiektuarekin bat egin duten eta hala eskatzen duten establezimenduek aldi baterako zenbaketa sentsoreak izan ditzakete establezimendu barruan, sartzen den jende kopurua neurtzeko, kaletik igarotzen diren pertsonen kopuruarekin alderatuta.

### Egun jakin bateko datuak bistaraten dira





## Auzoka antolatutako datuak lortzen dira




Datuen analisiari esker meteorologiak herritarren ohituretan duen eragina azter daiteke. Eskuinaldeko adierazlean ikus daitekeen moduan, zenbatutako pertsonen kopurua ia % 60 txikiagoa da. Emaitza hori lortu da egun oso euritsu baten eta erabat eguzkitsua izan zen aurreko egunaren arteko alderaketa eginda.

## Eguneroko zenbaketa patrioiak eta orduko datuak azter daitezke egun guztietarako



## Inpaktu esanguratsuak ebaluatzeko aukera ematen du, hala nola 2020an zehar COVID-19ak eta alarma egoerak izandako eragina.



Laburbilduz, tokiko saltokiek, herritarrek, unibertsitateek edo erakunde publikoek behar duten informazioa eskaintzen du.

- Pertsona kopuruaren denborazko datuak eskuratzea: ordu tartearen arabera, asteke egunen arabera, etab.
- Pertsonen fluxuen dinamika aztertzea eta ohiko ibilbideak ezagutzea.
- Datu historikoak bildu eta aztertzea: jokabide patrioiak osatuta.
- Pertsona kopurua aurreikustea.
- Inpaktuak neurtzea: kanpainak, meteorologia, ingurune gertakariak...
- Merkataritza espazioak ebaluatzea, pertsona kopuru handienak dituzten orduak aztertuta.